

BIZIKLETAK ESKURATZEKO ETA ERABILTZEKO JARRAIBIDE NAGUSIAK

1. BILBAOBIZI BIZIKLETEN MAILEGURAKO UDAL ZERBITZUA

Bizikletak Maileguan uzteko udal Zerbitzua, Bilbaobizi, pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak maileguan uzteko zerbitzu publikoa da, kutsatzen ez duen garraiobide osasungarri eta jasangarri honen erabilera errazteko eta bultzatzeko.

Bilbaobizi zerbitzuaren erabiltzaile izan daitezke adinez nagusi direnak edo 16 eta 17 urteko adin txikikoak; azken hauek, aitak edo amak, tutoreak edo legezko ordezkariak sinatutako baimena behar dute Baimen horretan, zerbitzuren tarifa adin txikikoaren aita edo ama, tutorea edo ordezkaria titular den banku-kontutik edo txarteletik kobratzeko baimena ere emango da.

Erabiltzaileek ez dute ezintasunik izango zerbitzu honen bizikletak erabiltzeko eta nahiko gaitasun fisiko eta psikiko eduki beharko dute bizikleta jarraibide hauen eta aplikatzekoak diren bide-zirkulazioko gainerako arautegien arabera erabiltzeko.

Aurrez adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek zerbitzuan alta hartu nahi izanez gero, honela egin ahal izango dute:

- Bilbaobiziren bezeroari arreta emateko bulegoan: Ernesto Erkoreka plaza 12, 48007 Bilbo

Nolanahi ere, ezinbestekoa izango da erabiltzaileak erabilera-baldintzak esanbidez onartzea eta edukiaren berri baduela adieraztea; horretaz gain, datu pertsonalak ematen dituenean, ordaintzeko metodo baliiodun bat ahalbidetu beharko du tarifa kobratzeko.

Erabiltzaileak eman dituen banku-kontuari buruzko datuetan edo datu pertsonaletan aldaketarik gertatuz gero, jakinarazteko konpromisoa hartuko du.

Bikoiztasunak saihesteko, debekatuta dago erabiltzaile berak bi aldiz alta hartzea, baldin eta aldezturik ez badau baja hartu

2. BILBAOBIZI ZERBITZUA ERABILTZEKO EREMUA

Zerbitzuaren erabiltzaileen joan-etorriak Bilboko udalerrira mugatuko dira soilik, eta esanbidez debekatuta dago eremu horretatik kanpo ibiltzea.

3. ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK BIZIKLETA BAT ALOKATZEKO

Sakatu "Alokatu" terminalaren pantailan, edo alokatu bizikleta Bilbaobizi aplikazioaren bidez. Egin kasu jarraibideei eta atera bizikleta ainguralekutik. Bilbaobizik aparkatzeko sistema bizikletaren koadroan integratua du.

Aparkatzeko, blokeatu bizikleta koadroko blokeo-palanka sakatuta; txistu-hots bat entzungo duzu bizikleta blokeatuta dagoenean. Aurrera jarraitzeko, aplikazio mugikorrean sakatu "ireki blokeoa", bizikletaren giltzarrapoa berriro irekitzeko. Mesedez, adi! Alokairuak aktibo jarraitzen du aparkatuta egon arren.

Eraman bizikleta Bilbaobiziren estazio batera, eta aparkatu bizikleta ainguralekuan. Txistu-hots bat entzungo duzu itzultzea ondo burutzen denean; beraz, alokairua amaitu dela esan nahi du horrek. Aplikazio mugikorrean automatikoki amaituko da alokairua. Bizikleten segurtasuna

bermatze aldera, Bilbaobizi bizikleta publikoen sistemak bizikleten arrastoari jarraitzen dio aldizka, geolokalizazioko teknologia baten bitartez.

4.BAJA ZERBITZUAN

Erabiltzaileek Udalera joanda eman dezakete baja zerbitzuan, beharrezkoa den inprimakia beteta; edo, bestela, bezeroari arreta emateko helbide elektronikoaren bidez: bilbaobizi@bilbao.eus, euren datuak eta bajaren arrazoiak adierazita. Zerbitzuan baja emateak, borondatez zein modu automatikoan, ez du kuotaren parte proportzionala itzultzeko eskubiderik ematen. Erabiltzaileak zerbitzuan baja hartzeko eskaera hilabeteko aurrerapenarekin, gutxienez, aurkeztu beharko du.

5.ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK

Erabiltzaileen eskubideei dagokienez, jarraian zehaztuko direnak esanbidez onartzen zaizkio, indarrean dauden arauen arabera eduki litzaketen bestelakoez gain:

a) Zerbitzuko bizikletak erabiltzekoa. Bizikletok eskuragarri egongo dira mailegupuntuetan; puntu horien kokapena zerbitzuko bezeroari arreta emateko bulegoan ez ezik, aplikazio mugikorrean (aurrerantzean, APP), www.bilbaobizi.bilbao.eus webgunean eta Bilbaobizi Puntuetan (aurrerantzean, PBB) ere adierazita egongo da.

Nextbike GmbH eta Empresa Sagalés SA ABEEak (aurrerantzean, operadoreak) jarriko ditu bizikletak zaintzeko eta berrituko banatzeko bitartekoak, ahal den neurrian bizikletak eta finkagailu-puntuak libre egon daitezzen zerbitzuaren puntu guztietan.

Zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ezin da ziurtatu bizikletak eta finkagailupuntuak libre egongo direnik beti. Libre ez egoteak ez du kalte-ordainetarako eskubiderik emango.

b) Udalak eskuragarri jarriko duen eskuko telefonoetarako aplikazioa (App Bilbaobizi) dohainik erabiltzekoa. Aplikazio horren bidez, puntu bakoitzeko bizikleten eta finkagailuen egoera jakin ahal izango da denbora errealean.

c) Zerbitzuari buruzko informazioa eskatu eta jasotzekoa.

d) Iradokizunak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko, dela posta elektronikoaren bidez, dela zerbitzuko Apparen eta webgunearen bidez, dela telefonoz deituta edo dela aurrez aurre, Bilbaobiziren arreta-bulegoan.

e) Aurkeztutako iradokizun, erreklamazio eta kexei dagokien erantzuna jasotzekoa, gehienez ere hilabeteko epean.

f) Zerbitzuaren gorabeherari buruzko informazioa jasotzekoa webgunearen, Apparen edo beste bide baten bidez.

g) Zerbitzuen tarifei buruzko informazioa jasotzekoa.

h) Bilbaobizi zerbitzuan erregistratutako pertsonarentzat ondoriozta daitezkeen erantzukizun zibileko ondorio ekonomikoak estaliko dituen aseguru bat izatekoa, betiere indarreko lege-araudiari jarraikiz, hirugarrenei gorputzean eragindako kalte-galerengatik, kalte-galera materialengatik eta beste edozein motatako kalte-galerengatik. Bizikleten mailegu-sisteman

erregistratutako erabiltzaile den aldetik egongo da estalduraren eraginpean, betiere kalte horiek bizikleten erabilera normalean eta/edo bizikletan normal ibiltzen ari zen bitartean eragin badira, Bilbo Hiria udal-mugarrean eta Bilbaobizi Bizikleten Mailegu Zerbitzua Baliatzeko eta Erabiltzeko Jarraibide Orokorrei eta indarreko zirkulazio-arauei jarraikiz.

6.ERABILTZAILEEN BETEHEARRAK

Hauek dira bizikleten mailegurako sisteman alta ematen duten pertsonen betebeharrak:

a)Zerbitzuaz modu egokian baliatzea beti eta jarraibide hauetan araututako funtzionamendua eta jarduna betetzea.

b)Bizikleta ez erabiltzea dirua irabazteko asmoz; beren-beregi dago debekatuta alokatzea edo/eta saltzea eta merkataritzarako, merkantzien garraiorako edo bestelako helburu profesionaletarako erabiltzea.

c)Bizikleta ezingo zaio hirugarren pertsona bati utzi; kontuaren titularra bakarrik ibiliko da bizikletan eta ezingo du beste inor eroan bizikleta gainean, ezta bizikleta modu seguruan gidatzea eragotzi dezakeen paketerik edo tresnarik ere

d)Bizikleta modu egokian erabiltzea eta gizalegea eta zirkulazio arauak errespetatzea, bizikleta behar den lekuetan edo/eta leku seguruetan aparkatzea, beste pertsona batzuen joan-etorria oztopatu edo segurtasun gabezia eragin barik.

e)Bizikleta behar bezala zaintzea, ez galtzeko edo inork lapurtu ez dezan.

f)BBPetan zirkulatzeako arriskua sor dezaketen akats larriak jakinaraztea. Bizikletak matxuratu gero, erabiltzaileak zerbitzuaren hurbileneko puntuko finkagailura eroan beharko du nahitaez. Ezinezkoa bazaio, mantentzelanetako zerbitzuari abisatu beharko dio, bizikletetan eta BBPetan adierazitako gorabeheretarako telefonoaren bidez, Bilbaobizi aplikazioaren bidez, edo bezeroari arreta emateko telefonoaren bidez.

g)Bere gain hartzea behar bezala ez erabiltzeagatik bizikletan eragindako kalteak. Zerbitzuaz baliatzeko eskubidea galtzea ekar lezake bizikletak modu egokian ez erabiltzeak.

h)Istripuren bat edo ezbeharren bat gertatuz gero, gorabeheretarako telefonozenbakiaren bidez, edo zerbitzuaren webgunearen eta Apparen bidez.

i)Bizikleta lapurtuz gero, erabiltzaileak salaketa jarri beharko du eskumena duen agintaritzaren aurrean, eta gertakaria zerbitzuaren arduradunei jakinaraziko die, jarritako salaketaren kopia aurkeztuta. Horrela egin ezean, baja emango zaio mailegu-zerbitzuan eta ezingo du berriro alta eman zerbitzuan, jarraibide hauetan adierazitakoaren arabera

j)Ahalik azkarren jakinaraztea txartela galdu edo lapurtuz gero; hirugarren pertsonak bizikleta behar ez bezala erabili izana leporatu daiteke haren falta 24 ordu baino lehen jakinarazi ezean

k)Galtzadatik edo bidegorritik, baldin badago, zirkulatzea, espaloietatik zirkulatzea saihestuz, ahal dela. BBPa bizikletan ibiltzeko ez den oinezkoen alderdian dagoenean, bizikleta eskuan hartuta eraman beharko da, bizikletaz ibil daitekeen lekuraino.

7. EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK (aparteko orri batean)

8.ZERBITZUAREN ORDUTEGIA ETA BEZEROARI ARRETA EMATEKO TELEFONO ZENBAKIA

Zerbitzua eguneko 24 orduetan egongo da martxan, asteko 7 egunetan.

Aste Nagusian, Gabonetan eta zerbitzua berriro egokitzeko, matxurak konpontzeko edo mantentze-lanak egiteko, zerbitzua guztiz edo aldi baterako itxi daiteke.

Ordutegiaren aldaketak erabiltzaileei jakinaraziko zaizkie posta elektronikoaren bidez eta Bilbaobizi zerbitzuaren puntuetan iragarriko dira garaiz. Informazio hori Bilbaobiziren webgunean eta Apean ere egongo da.

Bizikletak, gehienez, ordubetez jarraian erabili ahal izango dira.

Ordubetez erabili ostean, 10 minutu igaro arte itxaron beharko da beste mailegu bat egiteko; dena den, arrazoi operatiboak eta zerbitzuaren segurtasuneko arrazoiak direla eta, epe horiek noiznahi aldatu ahal izango dira betiere erabiltzaileei aldeztatik jakinarazita.

Bezeroari arreta emateko 94 656 49 05 telefono-zenbakia erabiliko da bizikleten edo BBPen matxura eta gorabeherak jakinarazteko, eta eguneko 24 orduetan egongo da erabilgarri, asteko 7 egunetan. Horretaz gain, zerbitzuaren aplikazio mugikorraren eta webgunearen bidez ere berehala jakinaraz daiteke zerbitzuan matxuraren bat edo gorabeheraren bat jazo bada.

9.ERANTZUKIZUNA

Udalak, baita operadoreak ere, ez dituzte bere gain hartuko erabiltzaileak bizikleta behar ez bezala erabiltzetik ditzakeen kalteak, ezta bere zerbitzuaren funtzionamendutik sortutakoak ez diren kalteak ere.

Beraz, erabiltzaileak bizikletaren elementuen (balaztak, gurpilak, txirrina...) egoera aztertuko du erabili aurretik.

10.ZERBITZUAREN TARIFA

Zerbitzuaren tarifak dagokion Zerga Ordenantzan jasotakoak eta indarrean daudenak izango dira. Nolanahi ere, Bilbaobiziren webgunean eta Apean argitaratuko dira.

11.DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna

Bilboko Udala. Mugikortasun eta Jasangarritasun Zuzendaritza

Ernesto Erkoreka plaza 12, 5. solairua, 48007 Bilbo

www.bilbao.eus

Datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak

datos@bilbao.eus

Datuen tratamenduaren helburuak eta Datuak gordetzeko epe edo irizpideak

Udalak eskaintzen duen mailegu-zerbitzuan bizikletak kudeatzea eta kontrolatzea.

Zerbitzua ematen den bitartean gordeko dira datuak, eta, horren ondoren, tratamenduaren ondoriozko balizko erantzukizunak artatzeko beharrezkoa den epea bete arte. Baimenean oinarritutako tratamenduaren kasuan (informazioa bidaltzea), interesdunak kontrakorik esaten ez duen arte edo baimena ezeztatu arte gordeko dira datuak.

Tratamenduaren zilegitasuna

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean (apirilaren 2ko 7/1985) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean (apirilaren 7ko 2/2016) oinarrituta garatu eta baimendu dira eskumenak.

Hartzaileak

Ez dago aurreikusita datu pertsonalen komunikaziorik.

Eskubideak

Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:

1. Beren datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzekoa, eta datu horien tratamendua mugatzea edo tratamendu horri uko egitekoa; horretarako, idazki bat bidali behar dute Tratamenduaren Arduradunaren helbidera, betiere beren nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta, edo Bilboko Udalaren herritarrei arreta emateko puntuetara.
2. Erreklamazioak Datuak Babesteko Euskal Agentzian aurkeztu behar dira.

7.EZ-BETETZEAK ETA ZIGORRAK

Zerbitzua erabiltzeko jarraibide hauek bete ezean, hurrengo atalean adierazitako zigorrak jarriko dira

EZ-BETETZEA	ZIGORRA
Erabiltzailearekin ezin harremanetan jarri hark emandako datuen bidez	Txartela desaktibatzea datu baliagarriak eman arte
Ordubetetik beherako atzerapenarekin itzultzea bizikleta	Ohartarazpena. Mezu bat bidaliko da jakinarazteko
Ordubetetik gorako atzerapenarekin itzultzea bizikleta	48 ordu zerbitzu barik
Ordu bitik gorako atzerapenarekin itzultzea bizikleta	7 egun zerbitzu barik
24 ordutik gorako atzerapenarekin itzultzea bizikleta	6 hilabete zerbitzu barik
Bizikleta behar ez bezala aparkatzea arrisku barik bizikleten, oinezkoen edo ibilgailuen osotasunerako eta/edo segurtasunerako	Hilabete zerbitzu barik
Bizikleta behar ez bezala aparkatzea arriskua sortuta bizikleten, oinezkoen edo ibilgailuen osotasunerako eta/edo segurtasunerako	2 hilabete zerbitzu barik
Akatsen berri ez ematea bizikleta itzultzean	3 hilabete zerbitzu barik
Bizikleta edo kontua hirugarren pertsona bati uztea	3 hilabete zerbitzu barik
Zirkulazio-arauak ez betetzea. Espaloi gainean ibiltzea	6 hilabete zerbitzu barik
Bizikleta behar ez bezala erabiltzea (eskailerak jaistea, lagun bat baino gehiago ibiltzea gainean...)	6 hilabete zerbitzu barik
Bizikletari eragindako kalteak behar ez bezala erabiltzeagatik	6 hilabete zerbitzu barik
Ausarkeriaz gidatzea	6 hilabete zerbitzu barik
Udalerrriaren mugetatik kanpo abiatzea bizikletarekin	Urtebete zerbitzu barik
Bizikleta dirua irabazteko asmoz erabiltzea, alokatzea eta/edo saltzea, merkataritzarako, merkantzien garraiorako edo bestelako helburu profesionaletarako erabiltzea	Urtebete zerbitzu barik
Bizikleta ez itzultzea eta lapurretaren salaketaren kopia ez aurkeztea	Baja zerbitzuan eta ezin alta eman berriro 3 urtetan

Goian adierazitako ez-betetzerekin bat berriro eginez gero, Udalak egoki iritzitako neurriak hartuko ditu zigortzeko eta erabiltzaileari horren berri emango dio.

Erabiltzailea zigortuta dagoenean baja eskatu arren, ez zaio zigorra kenduko.

Ezingo du berriro alta eman harik eta zigorra amaitzeko falta zaion denbora iragan arte.

Zigorra zerbitzuan baja ematea denean, ez da urteko kuotaren parte proportzionala itzuliko.